

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Zabor erroldak kobratzea, 2019ko lehen seihilekoa

Nik, Lucio Castañeda Martínez de Treviño Guardiako (Araba) Udaleko alkate-lehendakariak, hauxe jakinarazten dut:

2019ko uztailearen 23tik 2019ko abuztuaren 23ra, bi egun horiek barne, ordaindu ahal izango dela borondatezko epean 2019ko lehen seihileko zabor tasa:

1. Zaborrak. 2019ko 1. seihilekoa.

I. Ordaintzeko epea:

A. Borondatezko epea: 2019ko uztailearen 23tik abuztuaren 23ra.

B. Premiamendu aldia (ehuneko 5eko errekararekin): 2019ko abuztuaren 24tik aurrera. Egun horretatik aurrera administrazio premiamendu bidezko prozedura betearazleari emango zaio hasiera, hala xedatzen baitu indarrean den Dirubiltzarako Araudi Orokorrak.

II. Ordaintzeko tokia eta modua:

Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin behar, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B. Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideraturik gabe dutenek, borondatezko epean bakarrik ordaindu ahal izango dute, Guardiako Udaleko bulegoetan, txartel bidez.

III. Gomendioak:

Bankuan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Guardiako Udalarari jakinaraziko zaio, egin beharreko jakinarazpenetarako.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Guardia, 2019ko uztailearen 8a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO